

ALEXANDER TAPIA
(1899-1957)

Egilea:

JOSE MARI SATRUSTEGI

I. LEHEN URTEAK ETA GAZTAROA

Iruñea zaharreko katedral ondoan jaio zen Tapia Perurena azken erromantikoetako olerkari txukuna. Argizari, txokolate eta beste elikagai batzuen denda zuten gurasoek Nabarrera karrikan, 11. zenbakiko behean. Giro elizkoia bizi zuen une hartan Nafarroako hiriburuak eta diru aldetik ongi joan zitzairen nonbait gurasoei euren lanbidean, XIX. mende hasierako hiri txiki, hertsu eta herrikoian ohi ez bezalako heziketa irekia eta aurrerakoa eman baitzioten bost seme-alabetan hirugarrena zen Alexander gazteari.

Azpimarragarria da gaztaroko gertakizun bat bere bizia zeharo baldintzatu zuena. Askotan uste izan bada ere etxeko giroa dela pertsonen izaera gehienik markatzen duen eredu, alderantzizko joera eman daiteke batzuetan. Hori da hain zuzen irunsheme honekin euskarari buruz gertatutakoa. Aita lesakarra eta ama

Goizuetako alaba izan arren, euskaldun peto-petoak noski, ez zieten seme-alabei euskararik erakutsi. Gure mintzairaren prestigio eza nabarmena izan da azken mendeetan eta hiriak irentsi ohi zuen baserritarren euskal mundua. Bada, hala ere, Tapiatarren jokabidean kontraesana

1



Alexander Tapia (1899-1957)

dirudien zerbait: ama-hizkuntza etxean galdu arren, alargunak aitortu zidanez, zortzi urtean egon zen mutila atzerrian, bost Parisen eta beste hiru Alemanian, hango lengoia biak ikasten. Baserri giroan sortu eta mendez mende bizi izandako geure mintzaira gauza arrunt

eta estimu gutxikotzat zeukan herri xeheak, baliabide gabeko tresna bezala, alegia. Nork daki guraso haien gaztaroko hizkuntza muga estuegiei emandako erantzun pragmatikoa izan ez ote zen hizkuntza baliagarriak semeari eman nahia?

2



Alexander haurra, garaiko ohituren arabera argazkirako jantzia.

Alexander laster konturatu zen gabezia honetaz, bere eskuizkribuetan garbi adierazi zuenez: «O, au tamal aundia! –dio halako batean–. Nere gurasoak euzkotar eta euzkeldunak izan arren etzidaten euskera erakutsi. Bai ordia nere aberria maitatzen». Hara non, sukaldean ezagutu ez zuen euskararen aldeko giroa sumatu zuen mutilak hiriburuko basamortu erdaldunean.

Iruñeko eskoletan goxoki etxe aldetik ibili ondoren, atzerriko egonaldi luzea ez zitzaion hain atsegina gertatu. Hain murrizak diren bere biziko berrien iturrietan sakonduz, hara zer idatzi zuen behin herriminaren malenkoniaz, data eta guzti, eskuarteko papertxo batean:

Sakel batean eskua sartu ta, ene!
Ogerleko bat idoro det. 11.II.923.
Amabi ta erdiak dira. Oraintxe etorri
gera akeitetxetik. Orain otoitz egin eta
gotzon zaindariaren besoetan lo goxo-
goxo bat egitera biar arte Jainkoak nai
badau. Noiz utziko det uri au nere
sendiaren ondoan bizitzeko? Izan bedi
lenbailen. Amen. Let in go to bed.

Horrek aditzera ematen du, etxetik eta bere hiritik urruti hizkuntzak ikasten ari arren, bere sentimenduei fermu loturiko hizkuntza euskara zuela nafarrak.



Iruñeko
armarria.

Hogeita hiru urte zituen lerro hauek idatzi zituenean, hogeita lau bete gabe alegia. 1899ko abuztuaren 11n etorri zen mundura Alexander, eta katedralaren itzalpean bizi arren, hiriburuko eliza zaharrena zen Jesus eta Maria izeneko parrokiaren bataiatu zuten. Jesulagunen Curia kaleko ikastetxea izan zen garai batean eraikuntza hori, eta gorabehera askoren ondoren, 2000. urte hasieran elizkizunetarako itxi berria da azkenean eliza. Udalak erosi du

gizarteko beste eginkizun batzuetarako baliatuko duelarik aurrerantzean.

Kementsu ekin zion euskara ikasteari erronka gogorra jarriz bere buruari helburutzat. Euskaldun nortasunaren zutabe nahitaezkoa ikusten zuen arbasoen hizkuntza, eta ez zuen etsi ametsa beterik ikusi arte. Iruñea gogoan zuela, izena aipatu gabe, honako lerro esanguratsu hauek agertzen dira bere eskuizkribuetan:

Euzkadiko uri nagusi ta eder batian sortua, nere inguruan erdera baizik ez nuen aditzen... Orduan sortu zitzaidan euzkera ikasteko gogo bizi-biziya, bañan zoritxarrez ikaskintzak orain lez, asti gutxi uzten zidaten. Ala ere pixkaka pixkaka zerbait egin dut eta orain nere anayakin nere gurasoen elian aritzeko banaiz. Ez naiz ordea emen geldituko aurrera narraike erdera bezin ongi edo obekigo al ba dadi ikasi artio.

Euskara zen une hartan Alexander Tapia Perurena nafarraren erronka nagusia. Abertzaletasunaren ardatz nagusitzat zeukan arbasoen hizkuntza zaharra, eta ikastea ez zen beretzat zaletasun bat gehiago bere bizian, behar-beharrezko eginkizun ezin baztertua baizik. Erromantikoaren bihotza eta zientzia-gizonaren burua uztartzen dira ezkontza ulergaitz eredugarrian.

4



XIX. mende amaierako irudia



Lehen Jaunartze egunean.



Tapia bataiatua izan zen Jesus eta Maria parrokia, Iruñeko eliza zaharrena.

Ikasi ez ezik, aipatutako ametsa betez, hizkuntza nagusi bezala baliatu zuen geroztik. Ama-hizkuntza izan balu bezain sakonki jabetu zen mintzairaz, erabat normalizat hartzen zuelarik lorpen hau bestelako merezimendurik ez balu bezala. Honela zioen berak:

Baño ez uste, nere anai maitiak, arroturik nagoela ¡ez!. Badakit nere egin beharra bete bakar-bakarrik egin dudala. Bai, nere ustez abertzaleak diran esaten duten guztiak biz-pairu-lau urtetan ezpadute euskera ikasten ez tira benetako abertzaliak, ez tira biotzezko, baizik, mingañezko, gezurrezko abertzaliak.



Iruñeko emakumeak XIX. mende amaierako ohituretan.

Lekarozen egon zen euskarazko klaseak ikastetxean ematen. Bazuen han apaiz lehengusu abertzalea eta atsegina gertatu zitzaien benetan Baztango egoera. Honela egiten du gutun baten zirriborroan ahaidearen aurkezpena:

Iruñian bizi naiz beti. Baño orain urte batzuk emen Lekarozen, nere lengusu emengo jaupari (apaiz) ta traumeskindari (parroko) den Agirrebarrena'tar Bingen, abertzale sutsuaren etxian bizi naiz.



Tapia, jantzi ilunekin, lagun giroan.

6

Bere alargunak aditzera eman zidanez, hiruren bat urte egin zuen Baztanen. Ez da harritzekoa, beraz, lurralde eder haren gogoeta eta bertako mintzaira-kutsua nabarmentzea bere idazlanetan. *Baztango mendiak* izeneko olerki luzea eskaini zion, besteak beste, beti gogoan zeraman haran maiteari, «Igaro baintun zuen magalean / Urterik onenak gaztetasunean», dio sarreran, honela borobiltzen duelarik sentimendu hau azken bertsoetan:

Baztan'go mendiak, nere gaztaroko
Poz eta atsekaben mintzoge-lekuko!

Aintziñako oroitzak dakarzkidazute,
Ta nere gogoa larri egin dute.

Agur, izki biziz, amesti ta yoran,
Bizitzon zati bat dirakurt zuengan.

Bilbon agertzen da une batean eta bertan idatzi zuen 1927an *Miren Josune*, maiteminez hildako



Katedraleko dorreak Nabarrerria burgoaren babesle.

neskatoaren erromantze luze eta sentibera.

Berriro etxera itzulirik behin-behineko lanbide arruntari lotu zitzaion. Ilundain lehengusu iringilearen eskariz, errota eta saleroste guztien diru kontuez arduratu zen, ez atsegin zitzaiolako arreta handiz hark bultzatuta baizik. Letra-gizona zen, ez zenbaki hotzen bulegaria. Liburuak irakurri, olerkiak idatzi, hizkuntzak ikasi eta erakustea, zen bere gogoko jarduna eta laster utzi zuen bertan behera irinen kontularitza.



Igande arratsaldeko txangoa gerra aurreko alorretan. Eskubi aldetik bazterrekoa.

Bere bizia Nafarroako hiriburuan
igaro zen geroztik, hizkuntzak
erakusten gehienbat, bereziki

alemana, frantsesa, ingelesa eta
euskara. Bere adiskideengandik
zabaldutako berria da zortzigarren
hizkuntza, errusiera alegia, ikasten ari
zela hil aurrean.

Olerkariaren etxeaurrea
alde zaharreko Nabarrerian.



Ez zen gaur bezala, zioen alargunak, batxilergoko gramatika, matematikak, frantsesa eta beste edozein gai ematen zuen akademia antzera, berean nahiz ikasleen etxeetan. Euskarazko ikastaroetan pertsona helduak ere bazituen gaur egungo gueskolen aitzindari moduan. Ezkondu aurretik, ordea, helbide desberdinetako gutunak daude paperen artean. Lehenik Nabarrerria 13, 4.ean, bere etxearen aldamenean, ematen zituzkeen klaseak. *Profesor de idiomas* esaten da azalean. 1935ean Zapateria 50.ean, Alderdi Jeltzalearen egoitzan, kokatzen ditu postako harremanak.

Alexander Tapia berandu ezkondu zen. Korpus Laquidain, bere emazte gaztea, Orrio izeneko herrixkan jaio zen Ezkabarte ibarrean, Iruñetik gertu, hamar bat kilometrora. Mutilak gurasoen dendan ezagutu zuen andregai, bertara etortzen baitzen asteburuetan mandatuak egitera. Ezkondu aurretik ostatuan bizi zen Alexander, eta bera baino askoz gazteagoa zen neskatoa. Aldapa karrikan 3. zenbakiko bigarren solairuan, eskubiko atean, bizitu ziren ezkondu ondoren.

Ezkontza egunean familiako argazkia.



Olerki amultsu eta ederrak erdaraz idazten zizkion andregaiari, euskararik ez baitzekien. Bertso politak zirela benetan zioen ahots apalarekin, amets galduetan begiak murgilduz. *Otras veces me traducían del vasco*, zioen berak. Euskarazko haien estreinako zirriborroa dirudi lehen eskuko izkribu batek. Aldaki bi ditu: hitz ezabatu eta zuzenduak dakartza tintaz idatzitako *Usotxu bakuna* izenekoak, eta txukunagoa da *Emadan iria* dioena, arkatzez posta-sobre batean egina.



Eztei eguneko argazkia Orrioko emaztearen etxe aurrean.

Laugarren ahapaldia falta du bigarrenak. Hizkuntza aldetik, *noka* burututako lekukotasun bitxia da olerki hau. Honela dio:

Emadan iria

Neskatillik ederrena
maitea neretzat, i.
Lilirik usaintsuena
ere nitzat aiz, bai ki.
Akusdan aldiro nere
biotz au bularrean,
ene maite kutuntxua,
jauzika asten zakidan.
Izpildun inguma ariñak
nik ikusi zitiñat
lilitxuen billaldean
yoranez egaldaka
(*egaka lore inguruan
yoranez arat-unat*).
Bañan eztiñat ikusi
I añako pollitik,
Ire aldean ezpaitun
Ipiñi daitekenik.
Lili eder ingumatxu
neskatil ederrena:
begira nere biotz au
i gatik zoratuta.
Biotza ebatsi didan
ene biotz gaxoa!
emadan alik laisterren
ba, ordañez iria.

Amorante gaztetxoan agerpen xumea olerkari helduaren hitzetan, maitasunak ez baitu adinik inoren bihotzean.

II. IDAZLEA

Zerbaitengatik berpiztu badu orain bere herri ahanzkorrak, ehun urteren buruan, Alexander Tapia baztertuaren izena eta oroimena, goi mailako olerkaria delako izan da noski. Trebetasun handiz erabili zuen hizkuntza, biziaren ikuspegi erromantikoa barnekoi, sentibera eta zinezkoa zen, ilunabarreko hodeien histura eta etsipena zeriolarik bertsoen mezuari.

Gaztaroko amets ireki eta Europako haize berrien aldean, hertsiegia gertatu zitzaion gero bere herri maiteak nozitzen zuen euskal giro

itogarria, gehiegikeria ezin irentsia zitzaion etsaien eraso gogorra eta anaia arteko odoluste basak puskatu zion bihotza. Hizkuntzaz aparte aberria zuen bihotzeko amodio kutuna, Nafarroaren gerizpean babestua, noski:

Nabarra kutuna, su-izki guriekin
Idatzirik daukat zure izen donea
Biotz guenean, eta antxe nai zaitut,
Biziko naizeno, eduki gordea.

Nabarra maitea, sortu nintzan kabi,
Zuregandik urrun bizi nintzanean
Erriminak alatzen zidan gogoia,
Ta erio neraman biotzean.



Hiriburuko irudi erromantikoa

Sentipen hauen lekuko, bada haren bizian hitz guztiak baino esanguratsuago den ezaugarriarik. Iruñea erdaldunean inoren laguntzarik gabe ikasi zuen, esan bezala, gurasoengandik ez zetorkion euskara eta, atzerrian, Parisen idatziak dira *Zoruna* eta *Itundasuna* (1925), *Agur* eta *Gallurrarontz* (1926), *Euskal Esnalea* aldizkarian plazaratutako lehen olerkiak. Noranahi joanik edo nonahi egonik berekin zihoan beti, odol gorrian bero, herrimin gogotsu eta etorkizunaren kezka mingotsa.

Alemaniko egonaldian bertako erromantikoen iturritik xurgatu zuen garaiko idazle ospetsuen ekarpen erakargarria. Iruñeko idazlea ongi ezagutu zuen Apat-Echebarne, A. Irigaray zenaren hitzetan, ohikoa ez zen kultura lortu zuen. Alemanetik zuzenean itzuli omen zituen Uhland eta beste hango erromantiko batzuen olerkiak, gaztelaniaz idazten zuten poeten artean komunki gertatzen ez zena, bestalde. Apala eta sentimendu fineko gizona zela, aitortzen du haren adiskide sendagileak.

11

Atzerriko laguneroigarria.



12

Izaera apal horrek etxe zuloko isilunean sartzera bultzatu zuen olerkaria bere balioa ezkutatzu besteen aurrean. Horrek ez du esan nahi lanak azaltzen ez zituenik. Orduko euskal aldizkari guztietan sakabanaturik dago bere altxorra eta lehiaketa askotan parte hartu zuen, adibidez, *Olerti Eguna* izeneko zazpi ekitaldietatik (1930-1936) lau lehenbizikoetan agertzen da bere izena: Errenteria, Tolosa, Hernani eta Urretxun.

Errenterian Lauaxetak irabazi zuen, eta Aitzolek Lizardirekin aipatzen du Tapia hoberenen artean. Honela dio:

Euskerari bide berriak idikitzearren, bide xiurrak utzita zabalera jo dezan, almen bikañeko olerkariak agertu zaizkigu, Agirre jauna, Lizardi izenordez, eta Tapia'tar Alexander, Iruñekoa (...) Atzerrian Tapiak asmatutako «Txori mindua» irudi-kementsuaz indartua arkitzen degu: ekaitz zatarra biziki lenengo zatian, erri-miña zorrozki bigarreanean gure irudimenari adierazten dizkio. Euskeraren malda gora erkatzen dijoazten olerkari oien lan zailak, elertiarentzako onurakorrak zaizkigu egitan.

Lizardi gertatu zen bere herriko irabazle bigarren saioan. Epaimahaiaren zegoen Lauaxetaren hitz hauetan nolabaiteko deskargu kutsua nabaritzen da:

Tapia Perurena be olerkari ospetsuba dogu. Sarri orri onetan esan dot geuren egunetako olerkarijetan puntarengo bat dogula Tapia jauna. Neurekiko Musset jaunaren «Orrilla-gaba» ren antz larregi dau bere olerkijak.



Idazlearen argazkia.

Nikolas Ormaetxea ere epaileen artean zegoen. Olerki-dohainak ez *urriak* aitortzen dizkio Tapiari, «baina negarbera antxa da», dio Orixek. Aitzakiarik gabeko goresmen aintzagarriena, hala ere, Tomas Agirrerengandik jaso zuen, une hartan, Iruñeko semeak. Hau da haren iritzia:

Ez nun egundo irakurri olerkari onen lanik. Astiro ta arretaz aztertu det oraingoa: «Olerkariaren gaua». Nork abestu du eusko-olerti barrutian, alegia olerki-muetan, onek bestean? Badu olerkari onek oi ez daben zerbait. Asmamen yaukala, agian. Neurtitzak estuki darizkio. Artegatasunak zastaturik noizbait; ituntasunak erremindurik besteetan; abertzaletasunak suturik beti. Betorkigu sarrigo olerkari yaioa. Demaiogun emen bidezko dun gorasarrea. Dasaiogun berriro Olerti, neska gazte lirainaren agoan jarri zuna. Berealaxen mintzatuko zaizko Aberria eta Ama-euskara.



Edozein papertxo on zen bertsoak egiteko.


Ariztimuñok gogokoa zuen benetan Nafarroako olerkaria eta hark zuzendutako *Eusko Olerkiak* (1933), Urretxuko Olerti Jaietan aurkeztutako lan hautatuak dakartzan zenbakian alegia, aurreko urtean Tapiak *Yakintza* aldizkarian argitaratutako poesien bilduma berrargitaratu zuen, egilearen aipamen labur honekin:

Tapia Perurena'tar Alexander
gorengoenetako olerkaria zaigu. Ain da
ordea gizon apal eta otzana gure
olerkari au!

Gaurko olerkari ospetsuenetakoak
beren olermen biziz sortutako emaitzak,
nola ala bilduta, sorta antzean
argitaratzen dituzte.



Zirriborroen esku-langaia. Behin-behineko oharrak biltzen ditu.



«Naparra, zu zera» olerkiaren zirriborroa.

Ez ordea, gaurdaiño beintzat, Alexander olerkari yaioak. Onen aratz eta iduripenez aberats diran bertsoak an eta emen sakabanatuak agertzen dira.

Yakintza gurean, pozkiro oso Tapiá-Perurena'renak ezagun arazi ditugu. Adizkide onexeri Euskaltzaleak dion maitasun ezaugarritzagatik, ona emen igazko olerki bikañenak...

Laburra baina irudimentsua eta zehatza da S. Onaindiak *Milla euskal-olerki eder* bilduman eskaintzen dion aipamen ederra:

Gizon jakitun onek giartasunez josita dakarskuz bere sorpen guztiak, illeta min ta biotz intzirak geien bat. Olermen-ego zabal dabilkigu aldi oro; ezta ibar zale txepetx antzera, zeru oztin zale bat arrano lez. Eusko-olerti gudu ta jaietara sarri bialdu ebazan bai olerkiak bai poematxoak.

Gauza bitxia gertatzen da, bestalde, karmeldarraren lerro hauekin. Arranoa eta txori apalaren irudi bera darabil beretzat Iruñeko olerkariak argitaratu gabe utzitako eskuizkribu xumeetan ikus daitekeenez. Literatura jantziaren



Olerkariaren idazmakina.



Kattalin umezurtza, antzerki berreskuratua.

haizeetan izarretara hegatu nahian abiatu, eta bere ametsen zero sabaira ezin heldua aitortzen du, ondoko hitz hauetan:

Hementxe naukazue, irakurle maitiak, gure izparringi maite ontan zerbait idaztera gerturik. Arranoa bezala airez-zear egatu naiko nuke, baño nere egalak makal-makalak dira, txoritxua bezala naiz, adarrez adar, zugatzez zugatz bakarrik nabilke.

Parekotasunak ba ote du nonbait esaldi biak uztartzen dituen iturririk? Ala bazuketen elkarren berri?

Tapiaren hogeita bost olerki aipu ditu Jon Bilbaok bakoitza non dagoen azalduz. Badago beste aztarnarik noski nafar idazlearen emaitzan. Olerki asko utzi omen zuen etxeko paperetan, baina bera hiltzean gertatuaren berri inork ez daki.



Atzerrian kazetari. Eserialdia.

Euskal Herria eta amodioa ditu kantagai nagusi olerkariak. «Sagasti loretsuak» edo «Amaiur gaztelu baltza», «Txori mindua» eta «Orein zuria», lore eta ibai gardena, agertzen dira behin eta berriz bere amets idatzi guztien euskarri. Baina Euskal Herriko alaba gazte lirainak dira, bestalde, Tapiaren izkribuetako pertsonaia lehenak, baserri giroko mendi eta zelaietan sortutako gorputz aingerukoien irudi emea. Atzerriko ur beltzetan murgiltzen da eta galtzen, adibidez, *Lore igarra*; edo etorriko ez

den maitalearen zain zegoen zuhaitz ondotik eramango du berekin *Miren Josune*, zuriz jantzita, bakardadearen elur hotzak.

Ez dut uste urrutiegi joatea denik, neskatilaren ikuspegi maitagarri hori aberriaren sinbologia antzesgarria zela esatea, bizilaguna etxeratzen ere berandu arte arduratu ez zen lirikoaren sormen-labea. Emakume hezurmamituen kasu solteetan, bestalde, badaki nori doakion aipua izendatzen. *Lore bikaña* da horietako bat eta, «Saitzar'tar Maite neskatil eder-begikoari, biotzez», eskaintzen dio hasieran.

Besterik da drama landuagoen ardatza duten poemen kasua. Nahigabe guztien iluntasun zurruna argitzen duen eguzkia da, adibidez, *Poetaren gaua* izeneko bertsoetan azaltzen den «neska gazte bat, lerdin liraña, / Udaberri lez garbia». Olerkariak lehen bertsoetan azaltzen du bere tristura guztien sustraia non datzan:

Gau ilunaren ixiltasunan
Maiz ta sarritan gogaltzen,
Nere erriaren etorkizuna
Begi zorrotzez aztertzen,
Oñazearen egal larriak
Nere inguruan sumatzen...



Atzerriko kazetariekin Iruñeko katedralean, Nafarroako erregeen hilobi aurrean.

Zalantzarik gabeko aberri lirikaren ipar-orratza sumatu du neskatilak elkarrizketa luzean, eta honela galdetzen dio:

Ordun, olerkaria, zure maite kutuna,
Biotz orren jabea, sumatu det nor dan.
Aberriarendako maitasun bizkorrak
Surik ipiñi ditzu biotz-ezpainetan.



Uretako txangoa. Alexander aurrez aurre, ator-hutsean eta txapelarekin.

Olerkari koitaduaren anima biluzik agertzen da orduan, eta barnean daraman zoramen indartsuz azaltzen du aberri emea:

Bai, egia da! Entzun zadazu, Aldi artan zan
Bakaldun (erregina) on-emakorra
Urrezko illedi edergaÑean zeukan burestun
Aberats ta ditzikorra.

Sorbaldatik, zabal-zibuka, zerorkan beira
Bakaldunen janzkorra.
Eguerdiko euzki bezala didiratzen zun
Bere bekoki garbia.

Bañan ¡Ai gero...! Eta gero horretan datza olerkariaren gaua.

Bizi duena abestea da poeta erromantikoaren mundua, eta idatzitako bertso minberatuetan agertzen da egilearen bihotz sentibera.



Iruñeko Udalak argitaratutako olerki lanen bilduma.

III. GIZONA

Ez da erraza mende erdi baten ondoren «gizon apal eta sotilaren» bizitzako isilunean argibideak lortzea. Beranduegi abiatu gara jaio zeneko urteurrenean bizitzako pasarteak biltzen. Bere adinekoak joanak dira, eta alabak haurtzaroko irudi ezabatua atxiki du doi-doia. Alargunarengandik jasotako berriak baliatu ditut gehien bat.

Gizartean ahozko testigantza zuzenik ezean, lagunen aipamen idatziak eta eskuarteko bere izkribu apurrak dira iturri bakarra. Apaltasunaz bestalde, sentimendu sotileko gizona zela, *hombre humilde y de delicados sentimientos*, dio A. Irigaray sendagileak.



Alexander,
abertzale
kezkatia.

Begirada sakona ematen dio haren adiskide mina zen Jose Agerrek hileta ondoren eskaini zion lan txukun batean (*Pregón*, 1957, udazkena). Euskal sustraiak komunki minberatasunaren zentzu patetikoaz adieraztea zela Tapiaren ezaugarri nabarmena esan ondoren, joera hori bere-bere izateko moduarekin lotzen du. Gertakizun txarren aurrean bere bizimodu xume baina mingatz edo gozakaiztuen erreakzio ezezkorrak eraginda, biziak dituen une zoriontsu, gozamen, pozaldi eta oroitzapen atseginei iheska ibili ohi zela, dio. Altxor baliotsutzat zeukan euskararentzat adiskidearen ekarpen urria.

Pregón
aldizkarian
Jose Agerre
adiskide minak
eskaini zion
goratzarrea.



Erlijioaren orduko hersturarekin zerikusirik badu, behar bada, ikuspegi horrek. Elizkoia zen Tapia eta fededun. Elizari atxikia agertzen da kazetaritzako zirriborroetan utzitako aburuen arabera. Izenik eman gabe



Nabarreriako bere etxetik aurrez aurre beti katedraleko dorrea.

azaltzen duen «doktoze ospetsu» bati egindako omenaldian esandakoen aurka jarduten du, erlijioa baztertzen baitzen, elkartu ez baino haserreak sortzen omen dituelako ospe handiko familien semeetan. Zientziak baino hizkuntza unibertsalagoa mintzo duela erlijioak, esaten du berak, eta kristau ohituren aurkako iraina dela besterik esatea.

Elizarekiko atxikimendu fermua espresuki aitortzen du gero eta Erromaren azalpena aipatzen du

19



Tapiaren garaiko «Takonera» pasealekua.

burubide hauen arrazoi nagusizat: zilegi dela esatea, alegia, iritzi hauen guztien gainerik dagoela Aita Santuaren hitz gorena, berak baieztatzen baitu besterik gabe aurreko lerroetan azaldu duen desadostasuna. Erromako aldizkari ofiziala aipatzen du horren lekuko, kazetariari dagokionez.

Pentsabidez ez ezik, portaeran ere zintzotasuna azaltzen du. Gertakizun xume bat dela eta adierazpen irekia egin behar izan zuen behin. Kontzientziako bere leialtasuna zalantzan jarri zezakeen zurrumurrua iritsi zitzaion, nonbait, eta aitoren bat idatzi zuen gaztelaniaz egunkarian argitaratzeko. «Zinez mintzatuko gatazka izango da, dio, bihotza parez pare irekita beti egin izan dugun moduan. Tranpa eta trapu zikinen okasiorik izan dut noski, edozeinek bezala, bizian; gure egoera eta zure etorkizuna erraztu nitzakeen horrela, baina zu desohoratzen zintudala iduritzen zitzaidan, eta zure aitaganako lotsa senti zenezakeela noizbait».

Egunkariaren zuzendariari deskargu labur hori argitaratzeko eskatzean dio, «barra-barra zabaltzen ari ziren iritzi eta juzguen txikikeriak, besterik ezean, zuzendu eta hedatzen ez uztea interesatzen zitzaiola».

Parrokiako ekintzak arretaz jarraitzen zituen eta *Acción Católica*-ko kidea zen, Nestor Zubeldia kalonje ospetsuak sortutako *Solidaridad Cristiana de Familias* elkartekoa bezala.

Tapiaren kazetari lana bildu gabe dago. Zoritxarrez ez zituen izenpetzen izkribuak eta oso zaila egiten du horrek bere izkribuen jarraipen eta biltze lana. Ez zen utzikeria hutsez gertatu hori. Espresuki egindako debeku bat agertu da eskuarteko bere zirriborroetan eta familiako politika kontuagatik zatekeen. Honela dio hain zuzen:

Hemen dagortzudan idazkitxua on bazaitzu argitaldu ezazu gure izparringian; on ezpatzaizu nai duzuna egizu. Baño, arren, ez agertu nere izen abizenak, nere sendiya karlatarra da ta ez dut nai jakitea nik idazten dutela.

Eta beste ataltxo batean dioenez:

Nere aita azken gudan uskurt (erlijioa) ta aberriaren gaizkakundia (salbamena) etorriko zela, letorkela, uste zabalako, bere bizitza guzian aberriaren alde bere zañetako odol guztia ixurita ere gerturik egon da, bere biotzian abertzale sutsua dalako. Bere ezpañetatik ikasi nuen euzkadi eta euzkera maitatzen.

Berak hainbeste aldiz aipatzen duen izparringia zein ote zen galdetu nion emazteari, baina ez zekien. Atzerrian egon zela egunkari baten berriemaile, erantzun zidan bakarrik. Ezkondu aurreko ibilera baitzen, ez zuen horren berri zehatzik.

Euskara garbizaleen bere garaiko joera nabarmen sumatzen zaio eta bizkaierara makurtzen da batzuetan albistegai eta zirriborroetako gogoeta sakonak egiten dituenean. Ezagutzen zukeen Aranaren *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, eta López Mendizabalen *Hiztegia* aipatzen du hitz ilunen azalpen oharretan. Sabindar sutsu aitortzen du bere burua eta goraipamen aski duinik ez du aurkitzen haren gidaritza eta merezimenduak txalotzeko. Tapiaren idatzi ezkutuetako lerro hauen berririk ez da inon eman:

Itsututa zeuden euzkotarrak. Etzuten oldozten anayak zirala eta etsai amorratuak lez elkar usetzen ziran. Zenbat eta zenbat aldiz euzkotarren odol gorri-suhorrek ezatu zituen Euzkadiko zelayak eta aldiz katamotz gosiak lez eraso ziran... Alaxen igaro ziran eunki asko, baño egun batez –zorioneko eguna– euzkotar kementsu bat zutitu zan, oju zoli bat egin zuan, azkatasuna ojua. Arriturik gelditu ziran entzuliak, ero gizajo bat zela esan zuten. Jelgarri ura asi zan bere ikastiya



Alaba besoetan duela Aralarko Mikel Goiaingeruaren aurrean.

21

azaltzen eta edatzen eta euzkotar zintzo batzuek aditu zuten irakastiaren abotsa. Goritu ziran beren biotzak eta bere alde jarri ziran.

Laster amorratu ziran etsayak eta jazartzen asi zitzaizkion, espexian sartu zuten; baño irakastia etzan bildurtu...

Aintza ta aintza gure Sabin aundiari! Zuk ideki zenituan zure aberkidien begiyak, zuk erakutsi zenigun nondik datorken aberriaren gaizkakundia. Zu gabe lenago bezin itsu gangozke oraindik. Zuk edatu zenuan gure ikurri donetsiya eta besarkatzen il ziñan gure txalo billa ibili gabe, etzenuen zure izenaren oroipena ere nai. Euzkotarrak Euzkadirentzat, euzkotarrak eta Euzkadi Jaungoikoarentzat. Oixe da zuk nai zenduena.

Zu izanen zera beti gure eredua ta zure urratsak jarraituta egun batez autsiko ditugu gure joputasunaren (morrontzaren) katiak gure ikurdian (armarrian) ezartzeko.

Tapiaren lanak *Euskal Esnalea*, *Yakintza*, *Eusko Olerkiak*, *Vida Vasca*, eta garaiko beste aldizkari eta egunkarietan argitaratu ziren. Kazetari paperetan aipatzen duen «izparringi maitia» *Euzkadi* zatekeen. *Tapia'tar Alexander* izenpetu ohi ditu bere lanak, nahiz *Iruña'tar Alexander* ere agertzen den batzuetan.

Iruñeko abertzaleekin bildu ohi zen gerra aurrean egunero. 1936an erabat makurtu zen egoera, noski, eta ondorengo urteek ez zioten euskal kulturari, ez euskaltzaleei, batere lagundu. Espetxean egon zen olerkaria, arrisku guztiarekin. Bakardadea izan zen geroztik idazlearen basamortuko babeskia. Azkeneraino atxikimendua izan ziotenen artean, Jose Agerre euskaltzalea eta Leitzako bere lehengusu Jose Perurena, udal idazkaria izana azaltzen dira.

Liburu eta paper franko bazuela zioen, bestalde, etxeoandreak. Senarra hiltzean oso gaixo egon zen bera eta herrian zaindu zuen familiak. Garbitzen ibiltzen zen emakumearen eta behin edo beste laguntzera joaten zen beste andre baten gain egon zen bitartean etxea. Geroztik, batzuk eta bestek eraman omen zituzten izkribuak eta liburu asko, eta itzuli ez. Auskalo nondik nora ibilia izango ziren



Olerkaria lehengusuarekin indarrak neurtzen.

amesgaizto antzean alde zaharreko liburu denda txiki batean uste gabe aurkitu genituen paper nabar latz haiek. *Kattalin umezurtza* izeneko antzerkiaren testu argitaragabea zegoen oso-osorik, izkribu solte batzuen artean. Kazetaritza lanetan edo arkatzez idatzitako zerbait dator antzerki-orrien alde batean. Testu oso iluna edo erabat ulergaitza da. Beste orrialdean tinta urdinez ekin zion, paper berean, baserriko giro txarrean hazitako neskatxa umezurtzaren bihotz on eta eredugarria goresten duen antzerki lanari. *EGAN* (1985,3-4) aldizkarian agertu zen.



Ama-alabak Aldapa karrikako Tapia zenaren etxean.

Malenkonia eta historaz jantzirik daude Tapiaren izkribu gehienak, Euskal Herriari gainera zetorkion negu beltza sumatu eta ondore latzak nozitu baitzituen. Hori dela eta ezin zion poetaren hasperen ozena lumari ezkuta. Aberriaren enbor motzean txertatutako aldaxka minbera da abertzalea eta biziaren izpi bat zihoakion hitz bakoitzean:

Eguzkia badoa
mendi tartera
mendi goiak gorritzen
ta illuna beera.

Dilin-dala artaldea
ibartik gora
atzetikan artza
eta artzañora.

Antzinako igarle handien moduan mintzo da paper puska zartatuetan, bakarkako gogoeta ilunek inoiz argia ikusiko ez zutelako uste zinezaz. Azken borondate sakratuaren antza du inoiz entzun ez zuten euskaldun guztiei zuzendutako mezu honek:

Nere anai maiteak, eta batez ere euskerazko idazliak, ar zazute nere agur gartsua. Ara, negua etorri zaigu, txoritxuak joan dira edo ixildu, zagatzak ostorik gabe gelditzen ari dira, ortzia estalirik ilun-iluna, mendiak lañoen artian ezkutatu dute bere gallurra... sarri etorriko zaizkigu elurrak, eta hotzak. Ekaitzak joko gaituzte.

Alasen dago gure aberriya negu gordiñian. O! noiz ezereztuko dira bere laño gogorak? Noiz garbituko da negu luze au? Noiz datorkikegu gure askatasuna?

Au tamal mingotza!

Au oñaze latza!

Gerrarekin batera, nahigabetan murgildurik isildu zen poeta. Bizia zaintzea zen une hartako giro zital eta arriskutsuan euskaltzale gehienen helburu bakarra, eta beldurrak irentsi zuen bizirik gizona. Eguneroko ikasleez landa, inor gutxik daki gerra ondorengo Iruñean Tapia zenaren berri.

24

Laster amaituko zen kezka ilun eta gogoeta sakon haiek mantentzen zituen arnasa. Bertso ederrez goraipatu zuen Nafarroako hiriburuan zendu zen 1957ko maiatzaren 21ean. Hamar urte bakarrik zeramatzan ezkonduarik. Zazpi urteko Maria Jesus alabatxo bakarra lehen Jaunartze bezperan gelditu zen aitarik gabe, eta lutoarekin esan zituen hark egindako bertsoak elizan. Leitzeko haurren Jaunartze egunerako idatziak izan ziren olerkariaren azkenak.



Corpus Lakidain eta Maria Jesus Tapia ama-alabak.

Epitafio antzean labur bilduz esanda:

Hotsik gabe bizi zuen isiltasun hotzean irentsi zuen lurrak Nafarroako hiriburuan izan den euskal olerkari hoberena.

Bere emaitza ez da hil. Urria, ondasun bitxien antzera, ohore guztiekin loratu da berriro euskararen lorategian.

Maite zuen bihotzez esker txarren bere hiria, eta nahigabeen kezka latzez abestu zuen Aberria, Alexander Tapia Perurena, *irunsheme*, olerkari eta erromantiko abertzaleak.



Korpus, alarguna, senarrak klaseak ematen zituen gelan.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Alexander Tapiaren senitartekoak.*
- *Jose Mari Satrustegi.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1626-3 (Obra osoa)
84-457-1629-8

L.G.: BI-3033-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística